

itzulpena: Harkaitz Cano

Anne Sexton





**Munduko
Poesia
Kaierak**

Anne Sexton

itzulpena: HARKAITZ CANO

 **Susa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© Anne Sexton

© itzulpenarena: Harkaitz Cano

© edizio honena: Susa

2015eko martxoa

Munduko Poesia Kaierak

bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola

<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Ez da bidaia samurra Anne Sextonen poemetan barna egiten dena. Lerro gutxi batzuk irakurrita aski izango du irakurleak bere egiteko letra artean topatzen den oinazea. Sextonen poemek borroka egiten baitute etengabe bizitzaren mindurarekin, eta maite jolasean ari heriotzarekin. *“Eta ikasi behar izan nuen / zergatik nuen nahiago / hil, maitatu baino”* idatzi zuen argitasun eta gordintasun harrigarritz bere poema laudatuenetako batean, *Irudi bikoiztuan*. Izan ere, ia ekidinezina suertatzen da Sextonen poesiaz jardun eta haren bizitzako makur eta okerbideak ez aipatzea. Bere buruaz beste egin zuten emakumezko poeten taldekoa dugu, 1974ko urriaren 4an, odola vodkaz blai, garajea zuten Cougar gorrian sartu eta motorra martxan ipini zuenetik. Berrogeita sei urte betetzear zen.

Ordura arte, depresioaldi eta bulkada maniakoaren artean egin zuen nola edo hala bizitzan aurrera. 1955etik aitzinera, tratamendu psikiatrikoa jasotzen hasi zen, sekula etengo ez zuena. Haren mediku Marin Orne-k bultzatu zuen poesia idaztera —eta, azkenez, poesia gai bihurtuko zituen halaber bizitzan zehar topatutako sendagileak—. John Holmes-en poesia

tailerrera joaten hasi eta denbora gutxian erakutsi zuen dohain berezia zuela poesiagintzarako. Aurrerago Robert Lowell-ekin ere ikasiko zuen —Silvia Plath ikaskide zuela— Bostongo Unibertsitatean, AEBetako poesia konfesionalaren aita ponteetako bat, eta gero Sextonen poesiagintza ere konfesionaltzat jo izan da.

1960an plazaratu zuen lehen poema liburua, *To Bedlam and Part Way Back (Zoroetxera eta buelta (ia osorik))*, eta 1966an, *Live or Die*-rekin (*Bizi ala hil*), Pulitzer saria erdietsi zuen. Hortik aurrera poeta entzutetsu eta estimatua izango da AEBetan zein kanpoan. 1967an ezagutuko ditu, adibidez, Londresko poesia jaialdian beste bi poeta erraldoi: W.H. Auden eta Pablo Neruda.

Sextonen poesia konfesionaltzat jo izan dela esan dugu, eta egiazki, bere lengoaia eta idazkera aski gertukoa egiten da, harekin dialogoan dagoela sentituko du maiz irakurleak. Gisa horretako poesian bezalaxe, eta dagoeneko aski argi geratuko zen bezala, ni indartsu batek gobernatzen ditu ahapaldiak. Aitzitik, horrek ez du esan nahi, batetik, poemok berehalakoan, aise, idatzi zituenik. Ez alferrik, isiltasunaren (heriotzaren) amenazuarekin gudan, idaztea abortua-

rekin konparatzen du *Isiltasuna* poeman. Bestetik, zoritxarrez, Sextonen poesiaren izaera konfesionalak haren biografian sobera lardaskatzera eraman ditu zenbait ikertzaile eta biografo, Sextonen medikua eta alaba zaharrena Linda Gray Sexton —idazlea ere badena— tartean katramilatuz.

Linda ume zelarik idatzi zuen hain justu, *Transformations (Eraldaketak)*, hari irakurtzen zizkion haurrentzako ipuinetan oinarrituta. Sorta horretakoa da *Errauskine*, zeinak Sextonen poesia moldearen beste bi ildoren arrastoa ematen digun. Alde batetik, umore printzak, sarri askotan garratz puntua dutenak, eta bestetik, inguruarekiko begirada kritikoa, *Seigarren salmoa*-n ere, esaterako, presente dena.

Ez da beharrezko idazlearen biografia labainean murgiltzea Sextonek zenbat sufritu zuen jabetzeko. Roland Barthes-ek, Jacques Lacan-en terminologiari jarraiki, atsegina (*plaisir*) eta gozamena (*jouissance*) bereizten zituen irakurketari zegokionean. Haren arabera, literatura gorenak gozamena ematen dio irakurleari, plazera bainoago. Goi mailako literaturak irakurlearen ziurtasunak eta identitate zurruna jartzten ditu kolokan eta hala, oinazetik du plazeretik bezain. Sextonen poemez mintzatzen garelarik, egokia-

go da hitz egitea, segurki, gozamenaz atseginaz baino. Hobe guardia altua prest edukitzea zer gerta ere.

BEÑAT SARASOLA

Gisa horretako emakumea

Halakoa atera naiz, sorginek hartutako sorgin,
gauetz ausartago, aire beltzean nabil;
gaizkia amets, argirik argi,
etxerik xumeenetan bete dut nire aldia:
hamabi hatzeko eme, koitadu bakarti, nago burutik.
Halako emakumea, emakume ere ez haiz.
Gisa horretakoa izan naiz.

Topatu ditut basoko leize goxoak,
bete ditut zartaginez, hormirudiz, apalez,
armairuz, zetaz, askotarikoez;
afaria prestatu diet zizare eta iratxoei,
auhenka, bide zuzena erakutsi diet desbideratuei.
Halako emakume batekin, gaizkiulertuak maiz.
Gisa horretakoa izan naiz.

Ibili naiz zure gurdian, gidari hori,
igaroan doazen herriei diosal eginez beso-biluzi;
bizirauten, norabide distiratsu berriak ikasten,
nahiz oraindik zure sugarrek nire izterra hozkatu,

nahiz oraindik zure gurpilen bultzadak nire
saihetsak birrindu.

Halako emakume batek, hiltzeko lotsarik ez du, ala
bai?

Gisa horretakoa izan naiz.

Neskatxa ezezaguna ama berrien gelan

Haurtxo, sei egun ditu jada zure arnas-lasterrak.
Etzanik, esku-koskor bat ohe zurian;
etzanik, barraskilo ukabildua, hain txiki eta indartsu
nire bularrean. Animaliak dira zure ezpainak;
elikatzen zaitu
maitasunak. Ez da kontu txarra estreinako gosea.
Erizainek baiezkoa gandorraz; saski gurgildunetan
zaramatzate korridore almidoizkoetan,
gainerako deskabiratuak dauden multzora.
Katilu bat bezala okertzen zara; zure burua
nire ukimenaren bila. Badakizu nola garen elkarren.
Baina erakunde batena da ohe hau.
Ez nauzu luzaroan ezagutuko.

Medikuak esmaltea dira. Jakin nahi dute
gertaeren egia. Utzi ninduen gizonari buruz:
“pendulu-arima, halako gizonak mila,
bete zaitu umeaz, eme kaskarina”.
Baina gure senda-agiria zuri-zuri dago.
Ez dut zu hazten utzi besterik egin.

Orain gela osoak ikus gaitzan gaude hemen.
Arrotza naizela uste dute haiek, baina
ez dut hitz erdirik esan. Hutsik ni zu lehertzean,
airea zertan den ikas zenezan utzi nizunean.
Medikuek asmakizun bat antolatu didate
eta nik lepoa erakutsi diet. Ez baitakit erantzuna.

Zurea da ezagutzen dudan aurpegi bakarra.
Zure hezurra nirean, ene erantzunak edaten dituzu.
Egunean sei aldiz hautematen dut
zure premia, ezpainetako animalia, azala,
epel eta mardul handitzen. Ikusten ditut zure begiak
kanpin-dendak altxatzen. Harri urdinak goroldioan
nabarmen.

Begiekin kliska dagizu, harrituta,
eta nik, nire artean: zer ikusten ote duzu,
ene besoetako pozkida, nire isiltasuna urratu ahala?
Gezurren aterpetxe bat naiz. Berriz ikasi behar nuke
hizketan,
ala amore emanik zorameneri,
ukituko dut aurpegi ezagunen bat?

Korridorean behera saskiak berriro martxan.
Nire besoetako mahuka zara,

nire besoek eusten diete zure sahasen hostoei,
zure nerbioen erlauntza basatiari,
zure lehen egunetako gihar eta tolestura bakoitzari.
Zure gizon zahar aurpegiak
hitzik gabe uzten ditu erizainak. Baina medikuek
errietan egin didate ostera. Mintzo naiz.
Zu zara nire isiltasunak mintzen duena.
Jakin behar nuke; esan behar nieke
idatz dezaten zerbait. Nire ahotsak eztarria
kezkarazten du: "Aitaren izena: ez du." Besoetan
zauzkat
eta sasiko izendatzen zaitut.

Oraingoz, hori da dena. Ez dago besterik
esan edo gal dezakedanik.
Ez da inork bizitza salgai jartzen duen lehen aldia,
hobe haiek isilik badaude. Estu besarkatzen zaitut,
ene bisitari hauskorra, zure hontz begiak ukatzeko.
Zure masailak lore dira ni ukitzean.
Igurzten zara nire kontra. Ahantz dezagun hau.
Ni naiz kulunkatzen zaituen ur ertza. Nigandik
apurtu zinen.
Nik aukeratu dut zure bide bakarra, ene oinordeko
ttipi.

Eskua askatu dizut, geure gu galduen dardaran.
Zoaz, ume; nire bekatua zara, ez besterik.

Irudi bikoiztua

1.

Azaroan beteko ditut hogeita hamar urte.
Zu txikia zara oraindik, lau urte baino ez.
Hosto beilegiei begira biok, nola alferrik galtzen
diren,
neguko euriak astindurik,
zapal eta blai datoz lurrera.
Eta nik, bereziki, nirekin bizi izan ez zinen
hiru udazkenak dauzkat gogoan.
Medikuek zioten ez zintudala berriro hemen izango.
Sekula egiaz jakingo ez duzuna azaltzera noakizu:
nire garuna ez zela inoiz
hosto alderrai horiek
bezain benetakoa izango,
hala zioten haien hipotesi guztiek.

Nik, birritan nire
buruaz beste egitea hautatu nuen honek,
goitizenez deitu zintudan

mundura negar-zotinka etorri berri.
Sukarraren kriskitina zure lepoaz jabetu
eta ni zure buru gainean
panpina mutua legez balantzaka hasi nintzen arte.
Aingeru zatarren mintzoa aditu nuen orduan.
Erru osoa, hala entzun nien esaten, nirea zen.
Marmarrean zebiltzan
sorgin berdeak nire buruan.
Patuari iturri apurtu batetik uzten zioten
ihes egiten, tantaz tanta;
patuak nire sabela urperatu eta zure sehaska
bete balu bezala:
kitatzeke dudan zor zaharra.

Uste baino errazagoa zen heriotza.
Bizitzak onik jaioarazi zintuenean,
nire arima erruduna ken ziezadaten utzi nien
sorginei.

Hil plantak egin nituen
gizon zuriek pozoia erauzi zidaten arte:
besorik gabe eta dutxatu berri,
bozgorailuen eta ohe elektrikoen mordoiloan
sartu ninduten.
Barre egin nuen hoteleko eskuburdina eskusiboak

ikustean.

Gaur nagi dabilta haizetan hosto beilegiak.
Nora ote doazen galdetzen didazu.
Nik diotsut oraina lurrera amiltzen dela
bere buruarengan federik izan ezean.

Gaur, ene laztantxo, ene Joyce,
hura edonon bizi delarik ere,
maitatu zure niaren nia.
Ez dago aholku eskatzeko Jainkorik;
eta balego halakorik,
zergatik utzi nizun ba hazten
beste leku batean?
Zure bila itzuli nintzenean
ez zenuen nire ahotsa ezagutu.
Etorkizuneko zuhaitz zuriaren
eta mihuraren bikaintasun guztiak ere
ezingo lizuke galdu duzun oporraldia itzuli.
Nire burua maite ez nuen
garaian, elurra apartatutako bideetan ibili nintzen.
Zuk eutsi egin zenion nire eskularruari.
Elur berria egin zuen gero.

2.

Postaz jaso nituen zuri buruzko albisteak,
baita sekula jantziko ez ditudan mokasinak egin ere.
Nire burua jasan ahal izateko lain osatzean,
amarekin jarri nintzen bizitzen. Beranduegi da,
beranduegi, zure amarekin bizitzen jartzeko, esan
zuten sorginek.

Baina hantxe segitu nuen. Nire erretratua
eginarazi nuen, alde egin orde.

Zoroetxetik erdi-irtendakoan,
amaren etxera etorri nintzen, Gloucester,
Massachusettsera. Eta halaxe heldu nion amari
gogotik;

eta halaxe galdu nuen gero, haatik.
Ezin dizut suizidioa barkatu, esan zidan amak.
Eta ezin izan zuen. Nire erretratua
eginarazi zuen, horren orde.

Apopilo sumindua nintzen,
adabakiz josia, haur izateko handiegia omen.
Eginahalak egin zituen amak, oroitzen dudanez.

Bostonera eraman eta ile-ebakera aldaraziz,
adibidez.

Artistak esan zuen: zeure amaren antzera egiten
duzu irribarre.

Ez zitzaidan asko axola. Nire erretratua
eginarazi nuen, horren ordez.

Hazi izan nintzen herrian eliza bat zegoen:
armairu zurietan giltzaperatzen gintuzten,
lerro-lerro, elkarrekin abesten duten arauzale estu
edo eskifaiakideak legez. Nire aitak
txapela pasatzen zuen.

Beranduegi jada barka zaitzagun, zioten sorginek.
Ez zen barkamena eskaini zidatena, hain zuzen.
Nire erretratua eginarazi zuten,
horren ordez.

3.

Ziprizontze-hodiek arku batekin ureztatu zuten
itsas ondoko belarra uda osoan.
Sikateaz mintzatu ginen
gatzak txepeldutako zelaia

gozatu bitartean.

Saiatu nintzen belarra mozten,
hartara denboraren joana azkartuko zelakoan,
eta egunsentian nire erretratua
egina neukan jada. Itxuroso geratu arte
eutsi nion irribarreari.

Untxi baten marrazkia igorri nizun behin
eta bat zenbakidun postala.

Ama izan eta alde egitea
normalena balitz bezala.

Iparraldeko argi hotz pean
zintzilikatu zuten nire erretratua,
gogorarazteko-edo haren antzera
nola egon behar nuen ondo.

Nire ama soilik gaixotu zen.

Aldendu egin zen nigandik, heriotza ote zuen
atzetik,

heriotza sartzeaz bailitzan bere baitara.

Nire hiltzen-saiatze-hura barrutik jaten ari zitzaion
ustean.

Zuk bi urte zenituen abuztuan, baina nik zalantzati
neurtzen nituen egunak.

Irail hasieran begietara so egin zidan amak

eta minbizia eragin niola leporatu.
Erauzi zizkioten muino samurrak,
baina nik ezin zer esan asmatu.

4.

Uda hartan, mediku sorta antzutik
eta X izpietan ontziratu osteko zorabiotik
eta zelulen aritmetika zorotik
itzulbidean jarri zen gure emakumea.

Kirurgia: osatu gabea;
besoa: potoloegi;
etorkizun hurbila, eskasa;
hala entzun nien medikuei.

Itsas-ekaitzaren garaian
bere erretratua
eginarazi zuen.

Ispilu baten leizea
hegoaldeko horman jarria;
bat zetorren silueta, bat kolorea.

Eta nire antza zeneukan; soinean zeneraman
nire aurpegira

ohitu gabe zinen artean. Baina nirea zinen,
azken batean.

Bostonen pasa nuen negua,
seme-alabarik gabeko ezkongai,
sorginak ondoan neuzkala,
samurtasuna emateko ezgai.
Zure haurtzaro hasiera galdu nuen,
bigarren aldiz suizidagai,
hotel zigilatuari beste aukera bat emateko lain.
Adarra jo zenidan Arrain
Egunean. Barre egin genuen, ondo
egon zen hori.

5.

Maiatzaren lehenean
utzi nuen azkenean hotela;
lizentziaturik buru-eritasunetan
eta nire analistak balekoa emanik.
Hiztegi errimatua, idazmakina eta maletak
banuen nirekin ekartzerik.

Uda oso bat atzera berriz ere
bizitzen ikasteko,
nire zazpi gelatara itzultzeko,
zisneen txalupak eta merkatua
bisitatu eta telefonoari erantzuteko,
emazte batek beharko lukeen ganoraz koktelak
prestatu
eta nire gonazpikoekin

eta abuztuko azal betzaranarekin
larrua jotzeko. Asteburuero etorri zinen bisitan.
Gezurra. Lantzean behin baino ez.
Bertan zeunden itxurak egiten nituen nik,
nire antxumetxoa, nire tximeleta-neska,
gaztanberak zituena masailtzat, esana betetzen
ez zuen hiru zenbakia,
nire atzerritar

zoragarria. Eta ikasi behar izan nuen
zergatik nuen nahiago
hil, maitatu baino, nolatan zure xalotasuna
zitekeen zaurgarri eta erru-uztaren biltzaile.
Halaxe batzen ditu praktiketan den medikuak
zantzuak, ebidentzia lasaigarriak.

Gloucesterrera joan ginen urriko
egun hartan, muino gorrikarek
nire azeri larru gorri lehorreko
jaka gogorarazi zidaten,
umetan jolasteko janzten nuena;
erabat geldi,
hartz edo kanpin-denda bilakaturik,
leize bat nintzen irribarrez,
edo azeri gorritzta, bestela.

Arrain-haztegia igaro genuen,
amua saltzen duten txabola,
Pigeon Cover igaro genuen, Yatch Club, Squall's
Hill, oraindik itsas ondoko mendi-kaskoan
zain dagoen etxerantz, non
bi erretratu parez pare dauden bi hormatan.

6.

Finkatu egiten zait irribarrea ipar argitan;
itzala hezurraren azpimarra da.
Nire izate osoa begietan zain, gune

irribarretsua, aurpegi gaztea,
azeriaren lakioa...

Zer amets ote nerabilen hor eserita nintzela?

Finkatu egiten zaio irribarrea hego argitan,
Zimeldu egiten zaizkio masailak, orkidea
lehor baten modura; nire ispilu burlatia,
eraitsitako maitasuna, nire lehen irudi.
Aurpegi horretatik egiten dit soa
txikiegi geratu zaidan
heriotzaren buru harrizkoak.

Mamitu garen unean
ondo harrapatu gaitu artistak;
etxetzat dugun lientzoan irribarretsu,
aurreikusitako bideetan bereizi aitzin.
Azeri larru gorri lehorra sutarako egin baitzen.
Usteltzen da horman neronen
Dorian Gray.

Eta hauxe zen ispiluaren leizea,
denboran izoztuta balego legez
bere buruari so egiten dion emakume bikoiztua
—aulki ilun banatan eseritako bi emakume—.

Musu eman zenion zure amonari
eta hark negar egin zuen.

7.

Ezin zintudan nirekin izan,
baldin ez bazen asteburuetan. Beti
etortzen zinen behiala bidali nizun
untxiaren irudiari helduta. Azken aldiz
atera ditut maletatik zure gauzak.
Badugu elkar ukitzeko ohitura.
Nire izena galdetu zenidan lehen bisitan.
Orain betirako geratuko zara. Ahaztu
egingo dut nola talka egin eta aldendu ginen,
sokaz lotutako txotxongilo.
Ezin zitzaion maitasun deitu
asteburuak gu bere altzoan hartze hutsari.
Belauna urratu duzu. Nire izena ikasi,
espaloian aldaroka, oihuka eta negarrez.
Ama esaten didazu eta nire ama datorkit burura
berriz,
Boston handian ariko dena hiltzen nonbait.

Joyce izendatu zintugun ustez
laburtzeko Joy hitzaren pozez.
Gonbidatu gogaikarria zinen
etorri berritan, tapakietan bilduta eta heze,
arrotz ene bular astunean.
Zure premia nuen. Mutilik ez,
neska bat baizik, neska baten sagutxo esnetsua,
jada maitatua, jada builosoia, bere buruaren
baitako etxean. Joy izendatu zintugun.
Nik, nire neskatasunaz sekula ziur
egon ez den honek, beste
bizitza bat behar nuen, nire burua oroitzeko
beste irudi bat.
Eta hauxe da nire errurik latzena: zuk ezin zenuen
hura sendatu, ez eztitu.
Nire burua topatzeko egin zintudan.

Zahartuta

Beldur diet orratzei.

Nekatuta nago gomazko izarez eta hodiez.

Nekatuta nago ezagutzen ez ditudan aurpegiez,
iruditzen baitzait orain hasten ari dena heriotza
dela.

Nire ahizparen irribarrez eta objektuz betetako
amets baten eran hasten da heriotza.

Gazteak gara eta oinez gabiltza,
masusta bila Damariscottara bidean.

O, Susan, egin du oihu,
gerruntze berria zikindu duzu!

Zapore gozoa,
gainezka ahoa
azukre urdinez,

Damariscottara bidean.

Zertan zabilta? Utzi bakean!

Ez al duzu ikusten ametsetan ari naizela?

Amets batean ez dauzkazu inoiz laurogei urte.

Ene maite kuttun guztiak

Aita: aurten maldizioak jarri gaitu aparte,
amari segi diozulako bere lozorro hotzera arte;
zure bihotzean harria irakin du bigarren *shock*
batek

eta ordaindu ezin duzun egoitza horretatik at
ihes egiten noiz utziko ote dizudan gabilitza, orobat:
Dunneseneko hogeitramaje, Ford ingeles bat,
urrezko giltza, artile fabrikako zure akzioak,
beste testamentu bateko marmarren lege-
amodioak...

Kaxak ezezaguna zaidan jendearen argazkiz lepo
daude.

Ukitzen ditut haien kartoizko aurpegiak. Desagertu
egin behar dute.

Baina albumeko begiradek, zura bezain lodi,
haiengana lotzen naute. Behatzen diot mutiko txiki
horri,

traje zimurra jantzita norbaiten zain, adi...

Gero dator turutari jostailu bati legez heltzen dion
soldadua,

edota irribarrea ukatzen duen belusezko
emakumezko heldua.

Zure aitaren aita da hori? Marinako ofiziala
postariz jantzia? Aita, denbora batetik hona,
noren bila zabiltzan jada ez du axola.

Ez dut inoiz jakingo aurpegi horien asmoa.
Albumean denak giltzaperatu eta botatzera noa.

Hona, ni jaio nintzen urtean zuk hasitakoa:
ebakin-kaieratxo horituak dirudi tabako hostoa,
hain zimur dago. Hooverrek demokratik garaitu
zitueneko egunkari-txatalak ni seinalatuz,
Debeku urteak; Hindenburg zepelinaren sute-
albisteak,

eta berriagoak, gerrak zu piztu zintuenekoak.
Urte hartan, diruz ongi baina gaixorik,
alargun ederrarekin ezkondu zinen presaturik.
Zuk bigarren aukera hori izan aurretik,
zure lepo loditik zintzilik, negar egin nuen nik.
Hiru egunen buruan joan zinen mundutik.

Ezkontzako argazkiak, horra, turisten lekuetan.
Nassaurantz doan trenbidean lerrokatuta zaudete
honetan.

Hemen, txalupa bizkorren lasterketan, kopa
irabazle.

Hemen, tximeleta-esmokinez jantzita, urte zaharrez.

Hemen, gure txakurtegian, begirada arrosako
zakurrekin

—zerri bezatuak legez korrika kaiolan, ekin eta
ekin—.

Hemen, ahizpak saria irabazi zuen zaldi-lehian.

Beste honetan, gizonen artean gizon, duke baten
eran.

Orain gorde egingo zaitut, ene mozkortia, ene
marinela,

ene lehen zaindari galdua, maite-begiradak geroko
direla.

Bost urteko diario hau, amak eraman zuen hiru
urtez.

Deus esan gabe ere, argi esaten du nola zinen
alkoholzale.

Gehiegi lo egiten zenuen, hala dio.

Jainkoarren, aita, Eguberrietan aldiro

zure odolez betetako ardo kopa dut edango?

Zure zurrunbilo sasoiko diarioa ene apalean dago,

nire sasoiak zeharka dezan arte. Metaketa aldi

honetan soilik eutsiko diot amodioari.
Izan ene kuttun ala ez, biziraungo zaitut;
nire aurpegi arraroa zukanantz makurtu
eta ber gisan beharko zaitut barkatu.

Hildakoek dakiten egia

1902ko martxoan jaio eta 1959ko
martxoan hil zen amari,
eta 1900eko otsailean jaio eta 1959ko
ekainean hil zen aitari.

Joana da, diot, eta elizatik urruntzen naiz,
uko eginda hilobira doan segizio zurrunari;
bihoa bakarrik hila bere gurdiz.

Ekaina da. Ausart izateaz nago nekatuegi.

Lurmuturrerantz goaz. Nire burua eguzkia
zerutik desjosten den puntuan landatzea dut
irrikatzen,
itsasoa zambuluka altzairuzko atea den lekuan ia,
zain biok elkar ukitzeko. Beste herrietan jendeak
hiltzen jarraitzen du.

Maitea, harrika dator haizea
ur kazkabartutik, eta elkar ukitzea
da barrura sartuz osoki laztantzea.
Inor ez dago gaur bakarrik.

Gizonek hiltzen dute gutxiagotatik.

Eta hildakoak, zer? Zapatarik gabe doaz harrizko txalupetan. Haiek harrizkoago, itsasoa geldituko balitz litzatekeena baino. Eztarri, begi eta hezur-giltzadura oro bedeinkazioari uko egiteko dago.

Hegaldia

Aurkituko zintudalakoan,
orduero Bostonetik irteten den
hegazkina harrapatuko nuelakoan,
abiatu nintzen autoz hirirantz.
Pentsatuta, halako gau batean,
egarri den gizon orok edukiko zuela bere pitxerra,
emakumezko beltzak izara itzalietan etzango zirela.
Pentsatuta ibaiak ere hirian barna
nagiak aterako zituela otzan bere etzaulkian,
abiatu nintzen autoz hirirantz.
Halako gauetan, ibaiaren azken muturrean,
aireportuak listua legez egozten ditu hegazkinak
burtsako ziztada telegrafikoak bailiran.

Azeleragailuan oina jarrita
ozen abestu nien, kopilotuaren aulkiari,
kotoizko soinekoz jantzitako emakume saldoei,
ibai-ertzetan papurtzen den behe laino saretuari,
amu garestiak dantzarazten dituzten belaontziei.
More eta arrosa ikusi nuen ibaia,
hirira bidean lanbroa zeharkatu ahala.

Bidali ez nizkizun gutunez gainezka nindoan,
jaka gorria lepoan hartuta,
eskularru zuri-berriak magalean.

Ibaiari segituz egin nuen
autoz hirian barrena,
burrumba sortuz goi-behe, zintzo bide-seinaleei,
milia luzetan zehar leiho zikinak alboetan,
nork bere aferetan burua,
Summer tunelean barrena,
hesia hesiaren atzetik bere horma sufrezkoetan,
gizonezkoen txiza-lekuetan nola, lauzarik lauza,
halaxe irristatu nintzen,
inoren fardel bihurturik.

Aparkatu nuen, azkenean,
aski ez zen txanpona sartu parkimetroan,
eta korrika ni aireportuan.
Maitasunez txoratuta, korrika ni aireportuan,
galtzerdi garden luzeak eta gonak eta dolarrak...
Gaueko enplegatuak ahozabalka
egiten zion jendeari gau osoan diosal,
hark burua biharko soldatan zeukan.
Hegaldi guztiak geratu ziren bertan behera.

Hegazkinak pausatirik, kaioak pausatirik,
astun eta zurrin lekedazko putzuan.

Onarturik ez zintudala sekula aurkituko,
utzi egin nuen hiria.

Aireportuan mila elbarri eserita,
oin minberatuak sendatzen.

Behe lainoa itxi eta euria etorri zen
gogoak eman zionean.

Begi-belarriez arduratzen diren ospitaleak igaroz
gidatu nuen autoa

hortz postizoen eran lerrokatutako
bulego-eraikinetan barna.

Storrow Drive kalean gaindi, farolen argiak
zurrupatu egiten zituen

nora joanik ez zuten zomorroak.

Hiltzeko borondatea

Galdetu duzunez gero, gehienetan gogoratu ere ez.
Jantzita nabil oinez, bidaiak ez dit arrastorik uzten.
Haragiaren grina izenda ezina itzultzen da gero.

Orduan ere, ez dut deus bizitzaren kontra.
Ezagunak zaizkit oso aipatzen dituzun belar izpi
horiek,
eguzkitan ipini dituzun altzariak.

Baina suizidek hizkuntza berezi bat daukate.
Arotzen moduan, jakin nahi lukete *zein lan-tresna*
erabili.

Ez dute inoiz galdetzen, ordea, *zergatik eraiki*.

Birritan adierazi ditut nire buruarekikoak,
jabetu naiz etsaiaz, irentsi dut hura bitan,
neureganatu dut haren artea, haren lilura.

Era horretan, pentsakor eta astun,
olioa edo ura baino beroago,
ahozulotik adurra zeridala atsedean hartu izan dut.

Ez dut sekula nire gorputza labanaren ahoan
irudikatu.

Utzi naute are begi-mintzak eta azken gernu
kondarrak ere.

Suizidek, gorputza aise traizionatzen dute.

Zendu jaiok, ez dira beti hiltzen,
baina txunditurik daude: nola, bada, hurrek ere
irribarrez
adi-adi begiratuko lioketen droga gozo hori laga?

Bizitza hori dena zure mihipean bultzaka!
—hori pasio bihurtzea, berez, ez al da normala?—.
Heriotza, bai hezur tristea, ubelduraz betea,
esango zenuke zuk,

eta, hala ere, urterik urte, Dama nire zain da,
samurki sendatzeko zauri zaharra,
bere espetxe gaiztotik aska dezan ene arnasa.

Oreka aurkiturik, bertan topatzen dute suizidek
elkar;

fruituarekin amorratuta, ilargi puztu bat,

behiala musutzat hartu zuten ogia abandonatzen
dute,

liburu bat axolagabeki nonahi zabalik,
esan gabeko zerbait, telefonoa zintzilikatu gaberik,
eta maitasuna, hura edozer dela ere, infekzio bat.

[Y doktorea, kexa bat daukat]

Y doktorea, kexa bat daukat.

Zertara dator irribarre narritagarri hori?

Zergatik okertzen zara espantuka,

nire iraganari, nire minari, nire amorruari
buruz marmarrean?

Txiste bat al naiz?

Gas bat naiz?

Izugarri serioa da esaten dizudan guztia.

Ez dut hitz-jokorik egiten.

Ez dit mihiak irrist egiten.

Gordin ordaintzen dizut, esku-dirutan.

Garaiz etortzen naiz beti, ohartuko zinen.

Kantuan aritzen den gutxietakoa naiz.

Nire ahizpek barre egiten zidaten beti.

Barre, marrazten nuenean.

Barre, dantza egiten nuenean.

Barre, idazten nuenean.

Barre, jaten nuenean.

Kar, kar, kar.

Gernua eta malkoak darizkit.

Zuk puskatu zenuena naiz.

Nire umetokia ospatzeko

Haietako bakoitza txori bat da ene baitan.
Nire hego guztiak astintzen ari naiz.
Moztu eta erauzi egin nahi zintuzten,
baina ez dute egingo.
Gutziz eta erabat hutsik zeundela esan zuten,
baina ez zaude.

Gaixorik eta hilzorian zeundela esan zuten,
baina oker zeuden.
Eskolume batek bezala abesten duzu.
Ez zaude urraturik.

Zama goxoa,
naizen emakumea ospatzeko,
eta naizen emakumearen arima,
eta erdiguneko kreatura eta haren gozamena
ospatzeko,
zuretzat kantatzen dut. Bizitzera ausartzen naiz.
Hator, izpiritu. Hator, katilu.
Lotu, estali. Edukia daukan estalki.
Hator zelaietako lurrera.

Ongi etorriak, sustraiak.

Zelula bakoitzak, bere bizia.

Nazio oso bat asetzeko lain dago hemen.

Nahikoa litzateke jende arruntak ondare hau izatea.

Pertsona orok, mankomunitate orok esango luke:

“Ona litzateke aurten ere berriro erein

eta uztari begira jartzea. Izurria iragarri zuten,

baina

gaitza gainditua izan da”.

Emakume askok elkarrekin abesten dute:

bata zapata-lantegi batean dago makina biraoz

josten,

beste bat akuarioan itsas-zakurra zaintzen,

hura aspertuta Ford autoaren bolantean,

beste hura autopistan bidesaria kobratzen,

hura txahalaren zilborrestea eteten Arizonan,

beste hura alderik alde txeloa birrintzen Errusian,

hura eltzeak su batetik bestera aldatzen Egipton,

hura bere logelako hormak ilargi kolorez margotzen,

hura hilzorian dago, baina gosari bat dauka

akorduan,

hura bere tapizaren gainean luze etzanda

Tailandian,

hura ipurdia garbitzen ari zaio bere haurrari,
hura treneko leihotik begira
Wyoming erdian, eta beste hura dago
edonon edo nonbait edo leku guztietan, eta denak
kantari ari direla dirudi, nahiz eta batzuek ezin
nota erdi bat ere abestu.

Zama goxoa,
naizen emakumea ospatzeko,
utziezadazu hiru metroko lepokoa eramaten,
jo dezadan danborra hemeretzi urteko nesken
omenez,
utzi niri sakrifiziorako ontziak eskaintzen,
(hori bada nire lana).
Utzi bihotz-mintzak aztertzen,
utzi meteoroen distantziak eta angeluak neurtzen,
utzi loreen zurtoinak miazkatzen,
(hori bada nire lana).
Utzi tribuen eskulturak eskuz lantzen,
(hori bada nire lana).
Gorputzak behar duen kontu honetarako
utzi abesten
afariaren alde,
musuen alde,

bidezkoa den
bai
horren
alde.

Y doktorearentzako gutunak

[...]

Berriro helduko diot, Y doktorea,
zikinkeriarri buruz nire senak dioenarekin gainezka
den

sekulabelardiko diario honi.

Zertarako idatzi diario bat,

norbere zikinkeria aztertzeko ez bada?

(1962ko urtarrilaren 1a)

[...]

Maite dut *epel* hitza.

Jasanezina da ia,

hain heze eta arnasgarri.

Erizain sentitzen dut lurra,

nire negua sendatzen.

Lurra sentitzen dut,

zizareak gorantz labain,

inurriak tik-tak,

haritz hostoa gorozki baten eran, ustel,
eta oloa aingeru legez gora altxatzen.

Hasiera batean,
hori liteke uda:
lur honen zentzua
edo zeurea bera.

(1962ko ekainaren 3a)

[...]

Jainkoarengandiko exilioa baino ez da bakardade
hau.

(1963ko apirilaren 1a)

[...]

Gero bala bat ematen dit irents dezadan,
lotarako pastilla bat da.

Hildako hurrek osatutako sabel honetan natza:
heriotzaren gas horiak botatzen dituzte umeek
korroskadaka,
eta euren amak amildu egiten zaizkit, begi eta
belaun, nire gainera;
haietako bakoitza azken aldiz, haietako bakoitza

zinez hilik.

Eskailera tolesgarriaren gorenean dago artean
soldadua,
zakil gorria niganantz erakusle, erranaz:
ez da deus pertsonala.

(1969ko abenduaren 17a)

[...]

Zoriontsu naiz gaur bizitzako izarekin.
Maindire guztien garbiketa egin dut.
Zintzilik jarri eta ikusi ditut izarak
kaioen modura zalapartaka aireratzen.
Lehortu direnean askatu maindireak sokatik
eta aurpegia murgildu dut izara artean.
Bertan zen munduko oxigeno guztia.
Bertan zeuden munduko haur guztien oinak.
Munduko aingeru guztien hankarteak.
Filadelfiako goizeko lehen musu guztiak.
Espaloian txingoka ibiltzeko jolas guztiak.
Bertan zeuden, trapuz egindako mila poney.
Hau da, beraz, zoriona,
artisau nekaezin hori.

(1970eko azaroaren 9a)

Biluzik igeri

Jenderik gabeko
leize ezezagun ttipia topatu genuen
Capriko hego-mendebaldean.
Barruraino sartu eta gure gorputzek askatu
egin zuten euren bakardade osoa.

Minutu bat aski, geure baitako
arrain guztiek ihes egin zezaten.
Bost axola benetako arrainei,
ez ginen gu traba haien bizitza intimoan.
Bare labaindu ginen haien gainetik
eta azpitik,
aire burbuilak jaulkiz, puxika zuri ttipiak
eguzkitan gorantz,
kapelaz burua estalita lo zetzan
arraunlari italiarraren txalupa ondoan.

Hain gardena zen ura ze,
liburu bat irakurri
baitzitekeen urpean.
Hain bipila zen ura ze,

ukondo bat aski baitzen
eusteko hondoratu gabe.

Diban batean netzan bere baitan.

Matisseren *Odaliska gorria*.

Urtarra zen nire lore arraroa:

irudikatu emakume bat toga edo lepo-zapirik gabe
hilobi baten sakonera duen etzaulkian.

Leize hartako hormak

hamaikaurdin koloreko ziren,

eta zuk esan zenuen: "Hara! Zure begiak

itsas koloreko dira. Hara! Zure begiak

zeru koloreko dira". Eta nire begiak

itxi egin ziren bat-batean,

lotsatuta baleude bezala.

Masturbatzaile bakartiaren balada

Aferaren akabua heriotza da beti.

Begiak irrist, neska hura dut lantegi;
nire tributik jaulkiz, joantzat
zauzka ene hatsak.

Aserik ni. Izututa berriz, litezkeenak lekuko.
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Hatzarekin hatz, nirea da orain:

gertu daukat, hitzordu bat bezain.

Zintzarria astintzen dut, makur etzanik
zuk neska estali ohi zenuen alkoban.

Lore-loretan nengoen zuk maileguan noiz hartuko.
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Gau hau demagun, maitea, kasuko:

elkar xuka eta lumatu dezakeenari ez egin uko,
nola buruz buru, bultzaka edo belauniko
duen bikote bakoitzak elkar zurituko,
itzulipurdi alegeran ezin geldituzko.

Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Nire baitatik urratu naiz horrela,
mirari gogaikarria. Eta
ametsen merkatua denon bistan balitz?
Barreiatu naiz. Gurutzean josi.
Nire aran goxo, zuk arrapostuko.
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Nire aurkariak dauzka begi beltzak.
Uretako andere, harean dantzan,
pianoa ukitzen du puntatik hatzak,
lotsa ezpainez; txirula dirudi haren ahotsak.
Erratz-makila ote nintzen, belaun okertuko?
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Neska hark harrapatu zintuen, emakume
batek merkealdiko soinekoa apaletik nola,
eta ni birrindu nintzen harri bat bezala.
Tori zure liburuak, tori amukoak, hara.
Egunkariak dio gaur zarela ezkonduko.
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Mutil eta neska, gaez dira bat.
Blusak behera, galtz-botoiak aska.

Argiak amata, zapatak orpotik at.
Gezurrez gainezkako izakiak distiraka.
Elkar jaten dutelako dira gain-elikatuko.
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Behin soilik

Behin soilik jakin nuen zertarako den bizitza.
Bostonen ulertu nuen, tupustean;
Charles ibaiaren alboan oinez,
argiak ikusi nituen elkarri imintzioka,
dena neoi, dena bihotz estroboskopiko, ahoak
opera kantariek bezain zabalik;
zenbatu nituen izarrak, ene zaldun ttipiak,
ene bitxilore zauriak, eta jakin nuen nire maitea
oinetz nerabilela gauaren alde berdean,
eta oihu egin zien
nire bihotzak ekialderanzko autoei,
oihu nire bihotzak
mendebalderanzko autoei.
Nire egiari zubi konkordun ttipia
zeharkarazi nion,
eta presaka bultza, egia horren xarmari, etxerantz,
eta ezkutuan batu nituen goizean
taupada iraunkor hauek denak,
zertarako eta ikasteko,
ez zutela iraun.

Oinutsik

Ni zapatarik gabe maitatzea
da maitatzea nire zango beltzaran luzeak
—ene bi laztan kuttunak, koilarak bezain
erabilgarri—,
eta kalean biluzik jolasten utzi dieten
bi umeen gisako nire bi oinak. Korapilo bihurriak,
nire behatzak. Ez daude jada lotuta.
Askeago, hara: azazkalak eta lokailuen lokailu
giltzatuak, eta hamar eskaileratxoak, errorik erro.
Kementsu eta basati denak, Txerri Txiki hau
merkatura joan zen, eta beste Txiker hau
bertan goxo geratu...
Zango beltzaran luzeak eta behatz beltzaran luzeak.
Goraxeago, ene maitea, emakumeak
etxe ttipi diren sekretuak iragartzen ditu,
dena kontatzeko dauden mihi ttipiekin.

Gu baizik ez gaude
listuaren lautadan datzan etxean.
Itsasoak kanpai bat darama jantzita zilborrean.
Eta ni, aste oso batez, zure

neskatila oinutsia naiz. Salamia gustatzen?

Ez. Ez zenuke nahiago whisky bat?

Ez. Ez zara edan zale. Ni bai,
edaten nauzu. Kaioak arrain akabatzaile,
hiru urteko umeen txilioekin.

Olatuen joan-etorria lo-arazle, gau osoan
ni naiz, ni naiz, ni naiz

deiadarka. Oinutsik

zure bizkarra atabalkatzen dut.

Goizean aterik ate nabil borda barruan
harrapaketara jolasten.

Orkatiletatik oratuko nauzu orain.

Zangoetan gora egingo duzu bidea gero,
eta zulatuko nire gose-marka.

Errauskine

Askotan irakurri duzu hau:
hamabi ume dituen iturginak
loteria irabazi du.
Komun-zulotik aberaskilora jauzi.
Istorio hori.

Edo umezaina,
Danimarkako neskatxa ezta,
seme zaharrena sarean bildu duena.
Pardelak utzi, Dior jantzi.
Istorio hori.

Edo aberatsen esnezalearena,
arrautzak, esnegaina, gurina, jogurtak, esnea,
anbulantzia dirudien kamioi zuria daukana,
higiezinetan muturra sartu eta
patriketan dirua barra-barra.
Gaingabetuak laga, martiniak dzanga.

Edo etxe-garbitzailearena,
autobusean doana istripuaren unean;

aseguru etxeari puska polita kentzen dionean.
Erratz Enetik Bonwit Teller *boutique* dotorerara.
Istorio hori.

Behin

gizon aberats baten emaztea
azkenetan zen ohean,
Errauskine alabari esan zionean:
Izan fedea. Izan ona. Irribarre egingo dut hala,
zeruan, hodei baten joskuran.
Gizona berriz ezkondu zen, bi alaba zituen
andreak, aski ederrak,
baina bihotzaren ordeaz, zigor-hedeak.
Errauskine zuten neskame.
Supazter kedartsuan lo egiten zuenez
Al Jolsonen gisako, han zebilen.

Aitak hiritik opariak ekartzen zizkien,
pitxiak eta soinekoak beste neskentzat,
zuhaitz-adaxka soila Errauskinerentzat.
Amaren hilobian landatu zuen hark adaxka
eta zuhaitz bat hazi zen bertan.
Eta zuhaitzean uso bat pausatu.
Edozein gurari zuelarik ere berak, usoak

arrautza baten eran utziko zuen lurrera erortzen.
Txoria garrantzitsua da, lagun maiteok, kasu
txoriari.

Gero etorri zen dantzaldia, dakizuen legez.
Ezkon-azoka galanta bai, hura.
Printzea emazte bila zebilen.
Festa handirako denak prestatu eta pinpirindu ziren,
denak, Errauskine salbu.
Errauskinek baimena eskatu zuen, erreguz.
Dilista platerkada bat jaurti zuen amaordeak
errautsetara, eta esan zion: jaso horiek
ordubetea eta joan zaitezke gero.
Uso zuriak bere lagun guztiak zituen ekarri;
aberriko hegazti jator oro lanean jarri,
eta di-da jaso zituzten dilistak.
Ez, Errauskine, esan zion amaordeak,
ez daukazu arroparik eta, nola egin dantza?
Amaordeekin, hori gertatzen da.

Hilobiko zuhaitzera joan zen orduan Errauskine,
eta gospel kantari intziri bat egin zuen:
Amatxo! Amatxo! Usapal nirea,
bidal nazazu dantzaldira, han da-eta printzea!

Txoriak soineko urrekara askatu zuen mokotik
eta urrezko alpargata delikatuak orpotik.

Ez da, gero, zama makala, ez zen edozein txori.

Eta halaxe joan zen. Ez da harritzekoa ere.

Amaordeak eta ahizpek ezagutu ez

aurpegiko errautsik gabe;

aldiz, printzeak, istantean hartu zuen eskutik,

egun osoz dantzarako prest, askatu gaberik.

Ilundu ahala, bere kolkorako, Errauskinek hobe
zuela

erretira. Printzeak etxera lagundu

eta Errauskine usategian desagertu,

dena bat, eta printzeak nahiz eta aizkoraz txikitu,

Errauskine ez zuen barruan aurkitu,

hura errautsetara baitzen bildu.

Gertaera berberak errepikatu ziren, zenbait egunez:
hiru.

Ordea, hirugarren egunean printzeak jauregiko
eskailerak

argizariarekin igurtzi ditu.

Errauskineren urrezko zapata itsatsita geratu da.

Orain jakingo zuen nori zegokion zapata

eta dantzari bitxia hartuko beretzat.
Joan zen haien etxera eta bi ahizpak
txora-txora, oinak dituztelakoan eder-lora.
Joan da zaharrena gelara eta saiatu alpargata
jartzen,
baina behatz lodia traban denez, zirt zart,
moztu egin du sar dadin alpargata.
Printzea harekin doa pausoka, uso zuriak
ohartarazi arte jartzeko arreta: zenbat odol.
Anputazioekin, hori gertatzen da:
ez direla sendatzen gurari bat esanda.
Beste ahizpak moztu du orpoa,
baina odolak salatu du: tantaka doa.
Printzea nekatu antzo da ordurako.
Zapata-saltzaile baten larruan sentitzen hasia.
Baina azken aldiz saiatu behar.
Errauskineren zangoa sartu da zapatan, eta ez
edonola:
maitasun gutuna bere gutun-azalean nola.
Eztei egunean ahizpak datozkio
fabore-ehizan biak,
eta begiak mokoaz ateratzen dizkie uso zuriak,
bi gune barren-huts aurpegian uzteko
bi zopa-koilara mardulen antzeko.

Errauskine eta printzea,
bizi izan ziren pozez, betirako ustez,
museo bateko erakusleihoan legez,
inoiz gogaituko zituen ume-pardelik edo hautsik
gabe,
inoiz arrautzak uretan pasatzeko behar duen
denbora doiaz
eztabaidatu gabe,
inoiz istorio bera birritan kontatu gabe,
adin ertainak dakarren gerri-zabaltzerik gabe,
euren irribarre kuttunak betirako elkarri josita.
Biki jator, irribarretsu, ipuinetakoena.
Istorio hori.

Maiatzak 30

Ez honantz begiratu, ene Jaungoikoa, orain ongi
gaude.

suizida guztiak babarrun beltz salda jaten ari dira;
dalmaziarra, gure arbi zakurra, gure bizkarroi
pinttoa,

lo susta egiten ari da aulkian. Zuhaitzak, neskatila
berdeen

taldexka irudi, leiho guztietan kulunkan;

kaio bat, gertuko eta biluzik, badator baxutik.

Erroetatik hondoratzen da etxea, liburuz beteegi;
sukaldean azukre larria pixontzi barruan datza;
hozkailuan arrain urdinak beren amuak goitika;
ezkontzaren bihur-korapiloek irmo diraute,
marinelenak nola.

Bart, Roosevelt eta Trumani egotzi zion berak
ekonomiaren egoera.

Nik, Ike eta Nixon atera nituen mahukatik.

Biok oker. Biok giza-emazteki.

Arren, Jainko nire, orain ongi gaude.

Utz gaitzazu bakean, mesedez!
Ez bere jantzi gorri lodiekin
eta ho-ho baritono ahotsarekin
heriotza gugana bidali.

Nola ibili ginen dantzan

Nire lehengusuaren ezkontzan
urdinez jantzia nintzen.

Hemeretzi urte neuzkan

eta dantzan ibili ginen biok, Aita, orbitan.

Aingeruak ur turrustapean legez

mugitzen ginen, sutan diren bi txori legez.

Gero itsasoa pitxer batean nola higitzen den,
halaxe, motelago are.

Orkestrak kantu hura jo zuen:

“Oi, nola ibili ginen dantzan geure ezkontzan!”

eta zuk mahai biribil biragarri bat bainitza

erabili ninduzun jiraka baltseoan;

elkarren kuttun ginen, oso kuttun.

Orain, hilkutxan beztiturik zaudela,

zakur itsu bat bezain alferrikako,

orain, erasorako zelatan ibiltzeko ezgai,

doinu haren hotsak datozkit gogora.

Oxigeno hutsa zen edan genuen xanpaina,

eta fina, buruz buru, gure toparen txin-txina.

Xanpainak urpekari baten eran hartzen zuen arnas,

edalontziak kristalezkoak ziren, eta ezkongaiak

ametsetan heldu zioten elkarri,
1930eko dantza-maratoia irudi.

Gure ama, dantzaldiko erregina izan zen,
hogei gizonekin dantzatzen.

Zu, nirekin, hitz erdirik esan gabe.

Besarkatu ninduzunean, sugea mintzatu zen zure
ordez.

Sugea, burlati, jainko izugarri baten eran
esnatu eta trinkotu zen nire kontra,
eta elkarrekin makurtu ginen,
bi zisne bakarti bezala.

Isiltasuna

Irudiko luke, zenbat eta gehiago idatzi,
isiltasunak orduan eta higuatago naukala.

C. K. WILLIAMS

Nire gela karez zuritua dago,
nekazari giroko polizia-etxe bat bezain zuri
eta hura bezain isil;
ilargipean lixiba-distira duten
zaborretako
oilasko hezurak baino zuriago,
eta haiek bezain isil.
Bada estatua zuri bat nire atzean,
eta landare zuriak
birjina lizunen modura hazten,
deus esan gabe, euren
mihi lodiak zintzilik.

Nire ilea da ilun den bakarra.
Su zuriak kixkalia izan da
ikatz bihurtu arte.

Beltzak dira nire perlak, halaber,
sumendi hondotik berreskuratutako
hogeitahi begi itxura galdu.

Nire lumatik irteten diren hitzekin
betetzen ari naiz gela.

Abortu baten eran, tantaka hitzak:
airera txistukatu eta badatoz bueltan,
squash pilotak bailiran.

Bada isiltasunik, hala ere.

Isiltasuna beti.

Haurtxo baten aho itzelaren neurri.

Isiltasuna heriotza da.

Egunero dakar bere *shocka*, txori zuri bat,
ene sorbaldan pausatzeraz;

eta mokokatzen ditu nire begi beltzak

eta nire ahoko

gihar gorri kartsua.

Su-bonbak jaurtitzen

Gu gara Amerika.

Guk betetzen ditugu hilkutzak.

Gu gara heriotzaren dendari.

Azaloreen moduan sartzen ditugu kutxatan.

Zapata-kaxen eran zabaltzen da lehergailua.

Eta umea?

Umea ziur ez dela ahozabalka ari.

Eta emakumea?

Emakumeak beratzen jarria du bihotza.

Erauzi egin diote,

eta kixkalita dagoelako

azken ekintza bezala

ur-xorrotaz freskatzen du errekan.

Hauxe da heriotzaren merkatua.

Amerika,

non daude zure egiaztagiria?

Anbizioaren txoria

Hauxe da, beraz, kontua:
insomnioa goizeko hirurak eta laurdenetan,
eguzkiaren orenari jarraitu arren
hamabost minutuero ziztada elektrikoa
pairatzen duen igela nola,
halaxe erlojua bere mekanikari bultzaka.

Hitzen aferak nauka esna.
Kakao-esnea edaten dut
—amatasun beltzaran epela—.

Nahiago nuke bizimodu sinplea,
baina gau osoa daramat
kutxa handi batean poemak pilatzen.

Nire Hilezkortasun Kutxa da,
nire gordekina,
nire hilkutxa.

Gau osoan hego ilunak
bihotzean astin eta astin,
anbizioz beteriko txori.

Txoriak eraitsia izan nahi luke
Tallahatchie zubiaren neurriko talaia altuan.

Sukalde-pospolo bat piztu han
eta bere burua erre.

Michelangeloren eskuetara egin hegan
eta sabai batean margoturik agertu.

Liztorren habia zulatu nahi du
eta biziraun, jainko izanez.

Ogia eta ardoa hartu
eta Karibe itsasoan igeri dabilen
gizon alegerarekin erditu.

Giltza itxuran sakatua izan nahi du,
Errege Magoak giltzapetik askatu.

Hegan altxa nahi du arrotzengandik urrun:
bere bihotz zatiak zizka-mizka partitu.

Arropak aldatu ahala nahi du hil
eta diamante izan, eguzkitara murgil.

Berak nahi du, nik ere bai.
Jainko maitea, ez ote da aski
kakao-esnea edatea?

Hegazti berri baten premia, barren.
Behar dut Hilezkortasun Kutxa berria.
Honen barruan bada jada aski eromen.

Zirujaua

Jack McGintyrentzat

Jack, ene Jack handia,
arasa eta torloju arteko gizona,
nolatan zenirudien hain ñimiño
New Yorken? Jack doktorea,
zure bulegoan, baldintzapean
ni aske uzteko bileran,
joan zen astean nire aldakari torlojuak
kendu zenizkion hartan,
irla bat bezain handi zenirudien.
Orain torloju harekintxe eragiten diet martiniei
—lau hazbete, altzairu herdoilezina—,
eta lau urtez burdin horri iluntasunean eutsi zion
nire aldaka datorkit gogora.
Jack, ene Jack handia, hartuko al zenuke
belarri bat edo hatz bat,
nire oroigarri? Aroztegiko zure
tresnetako bat daukat nik...
Nire zer zati dagokizu zuri, ordea?
Ene hezurren oroitzapena
zure eskuetarantz hegan.

Errege hila

Arotz bat hartu nuen
nire hilkutxa josteko.

Bertan etzan naiz bart,
burkoa borrokarako prest,
egurraren lurrinpean, aise lagaz
errege zaharrari nire gainean
har dezan arnas.

Zain nago ene gorpuzño erailarekin hausnarrean
—denborak erail baitu—,
zain, noiz egongo marexala bezain zurrun gudu-
zelaian,
zain, isiltasunak desohora nazan;
ez duzu engoitik eztulik egingo, gogoan izan.

Heriotza izango da izuaren amaiera
—hiltzeari diozun izuaren amaiera ere bai—;
izua, nire ahoa betetzen duen zakur,
izua, nire sudurrean gora doan simaur,
izua, ura altzairu bihurtzen den lekuan,
izua, nire bularra birringailurantz hegan,
izua, euliak belarrian burrundaran,

izua, eguzkia pizten zait altzoan,
izua, gaua itzali ezin denean
eta egunsentia, nire egunsenti arrunta,
betirako da
giltzapean.

Izua, patata zahar baten moduan
bertan natan hilkutxa bat.

Nire suzko arrokekin dantzatuko naiz orduan:
horra errausketa-labeko hegaldia,
itsututa tximak eta hatzak,
Jainkoa zaurituko dut,
haren bisaje urdina,
haren tirania,
haren erresuma
ahalguztiduna, nire
afrodisiakoari esker.

Jainkoak

Sexton andereñoa jainko bila atera zen.
Zeruan hasi zen haien bila...
topatuko zuelakoan
aingeru zuri izugarri bat, hankarte urdinez.

Alerik ez.

Ikasketa liburuetan bilatu zuen gero
eta tintak tu egin zion ordeztu.

Alerik ez.

Korrok egin zion aurpegira poeta handiak
harengana joan zenean erromes.

Alerik ez.

Munduko eliza guztietan errezatu
eta kulturaz ikaragarri ikasi zuen.

Alerik ez.

Benetako jainkoaren bila
Atlantikora eta Pazifikora joan zen.

Alerik ez.

Bisitatu zituen Buda, Brahma, Piramideak,
eta itzuli zen beteta postalez.

Alerik ez.

Bere etxera itzuli zen orduan bueltan
eta munduko jainkoak topatu zituen komunean atera
nahi ez.

Azkenean!
oihukatu,
eta atea itxi zuen.

Seigarren salmoa

Amerika kale maiztu gabea, margotu gabeko
atarian
kulunkatzen den emakumea da.
Baina Annek ez du ikusten.

Amerika Wichitako liburuzain bat da, hautsa
eztulka,
postariarekin litxarreriak partekatzen.

Amerika Abraham doktorea da Woolrich,
Pennsylvaniako hiritarrei
penizilina eta azukre pilulak banatzen.

Amerika, Albion, Michiganen oinak garbitzen dituen
gizon zaharra da. Arretaz lehortzen ditu gero,
Scholl-doktorearen-oinetako-hautsarekin igurzteko.
Baina Annek ez du ikusten. Anne giltzapean dago.

Amerika lapur gizarteratua da, sarrailagile orain,
dendako atea bederatzietan zabaltzen goizero
(igandeetan salbu; igandeetan, dendako atean

zintzilik

jartzen du bere telefono zenbakia, behar izanez gero).

Amerika emakume gizen bat da English Creek, New Jersey,
piano ikaragarri bati hautsak kentzen.

Amerika antezko eskularru ekoizlea da aulki birakarian eserita, salgaiak azalean sentitu eta bere zorrak eta aktiboak zenbatzen.

Amerika autobus gidaria da Embarrass, Minnesotan, errepideari su eman eta kartoizko maleta ttipien joan-etorriari so.

Amerika Komunista eta Debekatzailleen lurraldea da. Baina Annek ez du hori ikusten. Anne giltzapean dago.

Troskistek ere ez dute bera ikusten. Errepublikarrek ez diote sekula kokotsa atximurkatu, bera ez dagoelako inoiz han. Anne barruan ezkututzen da, arrosak arrosen atzetik zabaldu eta tolesten. Berak

ez dauka inor.

Berak Christopher dauka. Bere gelan eseri dira,
panpinen sudurrei zimikoak egiteko, panpinen
begiak sakatzeko.

Behin alpargata iletsu batean paseatzera atera
zuten panpinetako bat,
baina gehiegi zen, urrunegi joatea zen hura. Anne ez
zen ausartu.

Annek alpargata barruan panpina paratu eta
armairuan sartu zuen,
auto bat balitz bezala alpargata. Atea itxi zuen gero.

Amerika, Detroit, Michigango fabrikako auto-argien
gizona da,
kableen ardura duena, globo zuriarena, egun osoan,
urte osoan,
urtebeteko auto-argi guztiena, egunero hirurogeita
hamar,
automatizazioak hobetzen ditu, bidenabar; ez, ordea,
Anne.

Amerika Ohioko meatzari bat da,
zulo ilunean behera labain gauero,
katu begiak bueltan ekartzeko gero.

Amerika gela hau soilik delako...
ez dago deus baliagarria egiterik jada.

Amerikan, zeure panpinak soilik dira alai.

Arropak

Hil aurretik alkandora garbia janzteko
aholkatu zuen errusiarren batek.

Lerderik ez, arren,
arrautza orbanik, odolik,
izerdi edo espermarik ez.
Garbi nahi nauzu, Jainko,
saiatuko naiz konplitzen.

Ezteietako kapelua, nahikoa izango da?
Zuri, zabal, gezurrezko lore-sorta ttipiaz.
Modatik pasata dago, sitsa bezain dotorea,
baina zerbait nostalgikoa behar hiltzeko, ala?

Hartuko nuke
narras-lanetarako nire alkandora,
behin eta berriro garbitua, noski,
horiz apaindu ditudan sukalde guztietan zikindua.
Jainko, axola dizu nire sukalde guztiak ekartzen
baditut?

Denak beharko, familian barreari eta zopari eusteko.

Bularretakoa

(merezi al du aipatzea?)

kendu nuenean maitaleak mespretxatu zuen beltz
hura,

betegarria zuena.

Esan zidan: "Nora joan da dena?"

Hartuko nuke

bederatzigarren hilabetean neraman gona ere,
ume bakoitza sagar bana balitz legez ateratzen utzi
zuen

nire sabel bipilarentzako leihoa:

harekin bota nituen urak jatetxean,

harekin egin nuen bertan goxo hiltzeko moduko
etxe iskanbilatsu bat.

Barruko arropatzat kotoi zuria hautatu behar:

hautzaroko kulotak,

amaren agindua baitzen

neska txintxoek kotoi zuria baino ez janztea.

Hori ikusteko adina bizi izan balitz,

WANTED paskina jarri izango zukeen amak
postetxean,

jantzi izan ditudan beltz, gorri eta urdinak tarteko.

Edonola ere, arazorik batere ez nigmatik
neskatxa txintxo baten eran hiltzeko,
Clorox eta Duz usainarekin.
Hamasei urte banitu barruko-arropetan,
hilko nintzateke galderaz beterik.

Erabiltzeko moduak

Gas-ganberan hil zen aita,
arrain biluzi urdina, arrastaka,
Barruan zeraman judua dutxan ezin irentsita.
Sendagileen esperimentuetan hil zen ama,
txerri bat sartu zioten umetokian:
hil egin zen txerria, eta ama itsutu,
galdu egin zituen bihotzeko barrukiak.

Ni bakar bakarrik atera nintzen aurrera,
goseak akabatzen iraun nuen, gorpu bat
edo bi janez.

Amerikarrak etorri ziren gero, kakahuete-
gurinarekin.

Oporraldi bat bezala irentsi nuen.
Denak maitatu nituen, “judu urdanga”
esaten zidan ofiziala barne;
nahiz eta sartu, sartu egiten zidan,
nahiz eta hamaika urte besterik ez izan.

Gero, komentura joan nintzen
Jesus etxekotu batekin maitemintzera;
hanka egin behar izan nuen, ordea,
griskara bihurtzen ari nintzelako
—ilea, begiak, sudurra, ahoa, aurpegia—.
Sagu bat nintzen,
ene Cheddar gazta-tranparen bila.

Sekula ez nuen negarrik egin.
Kasu horri!
Sekula ere ez.

Hurrena: AEBak,
bala-zulorik gabeko
eraikin dibertigarri, gurinezkoak,
bonbaz josi gabekoak inoiz.
Baina kartzelak bai, badituzte,
eta haietako baterantz
ziztuan ni.
Han putekin egon nintzen ziegan,
barroteei helduta,
gauza handirik esan gabe ez bada:
“Judua naiz.
Konpon dezakezue hori nolabait?”

Amodiozko gutuna sutan den eraikinetik

Foxyy, ene kuttunetan kuttun,

kutxa batean nago,
gurea zen kutxa hartan,
alkandora zuriz eta entsalada berdez betetako
hartantxe,

hozkailua gure kolpe goxoei kolpeka.

Gogoratzen nola janzten nituen filmak begietan,
nola arrautzak janzten zenituen zure tunelean?
Egun osoan jolasean ibili ohi ginen izara artean,
—izara artean, izara artean, baita bainuontzian
ere!—

zoro-sukarrak jota.

Baina gaur su eman diot oheari
eta ke berroz betetzen ari da logela,
gutxi falta du hormak urtzen hasteko,
hortz zuri likatsua da hozkailua bera.

Maskara soinean idazten ditut azken hitzok,
eta zuretzat dira, hain zuzen; vodkaaren eta tomateen

txokoan

ipiniko ditut, hozkailuan,

beharbada iraungo dute hartara.

Zakurrak ez du iraungo, seguru. Orbanak eroriko
zaizkio.

Gutun zaharrak erle beltz bakarrean desegingo dira.

Kamisoiak ari dira jada zirtzilatzen,

paper bihurtzen, hori, gorri, ubel.

Ohea —tira, izarak, egiaz—, urrekara dago jada,

urre gogor-gogorra, eta koltxoia

musutruk, harrizko bihurtu da.

Niri dagokidanez, Foxy kuttuna,

ene zuretzako poemak hozkailuko itxaropen

eternoan

salbu egon litezke ala ez...

Izan ere, zure eternitatea, ez al da aski?

Nire izena irratian zuzenean esan zenueneko hura.

Behatzek jada amore eman ez balidate,

osorik kontatuko nuke istorioa

—ez soilik izaren zatia—,

baita zilborraren istorioa ere,

betazal begiluzearen istorioa,

titiburuko whisky garratzaren istorioa.

Gure maitasuna lurpetik atera eta
dagokion lekura jaurtiko nuke.

Amiantozko nire eskularruak gorabehera,
hauts gorri-beltza iragazten dit
zainetan barrena eztulak.

Denon bistan dator bertan behera gure kutxa ttipia,
ahalegin berezirik gabe, ikusten duzu,
ekintza bakartia izan nahi luke,
maitasunaren errausketa,
baina, horren ordez, badirudi
Errusiako kale baten erdian hondoratzen ari garela.
Behin eta berriz jo eta zigortutako zaldiaren hotsa
ateratzen dute sugarrek,
gizakien garaipena gurtzen du zartailuak.
Eta bitartean, zain daude euliak,
ziztuz ziztu, zehatz-mehatz,
United Fruit Companytik hona bidean.

Arraunean

Istorio bat, istorio bat!

(Utzi joaten. Utzi etortzen).

Plymouth auto baten lohi-babesa bezala
zanpatu ninduten mundu honetarantz.

Sehaska etorri zen lehenbizi,
bere barrete izoztuekin.

Gero panpinak

eta euren plastikozko ahoekiko nire atxikimendua.

Gero eskola,

aulki ilara estu eta zuzenak,

nire izena behin eta berriro zirriborratu beharra,
itsaspeko izaki beti,

ukondo alferrak zituen arrotza nintzen.

Gero bizitza

bere etxe krudelekin

eta nekez elkar ukitzen zuen jendearekin
—ukitzean datzan arren dena—.

Hazi nintzen hazi, hala ere,

gabardinaz jantzitako txerria legez.

Izan zen agerpen arrarorik,

huri etengabea, eguzkia bilakaturik pozo,

gauza horiek denak,
bihotza erdibitzen zidaten zerrak.
Hazi nintzen hazi, hala ere,
eta han zen Jainkoa,
arraunean harrapatu ezin nuen irla baten gisako,
oraindik hari bizkarra emanda, beso-zangoak
sasoiko.

Eta hazi nintzen, hazi,
tomateak erosi, errubiak jantzi,
eta orain, nire bizitzaren erdian
—hemeretzi bat urte bai buruan, esango nuke—,
arraunean diraut, arraunean,
tolet herdoilduak trabatu arren,
itsasoaren begi-nini kezkatuak
kliska eta kizkur eginagatik,
arraunean diraut, arraunean,
haizeak atzerantz bultzatu arren,
nahiz eta irla hori perfektua ez den.
Badakit irla horrek bizitzaren akatsak,
eta afalosteetako zentzugabekeriak berekin
dauzkala,
haatik, egongo da ate bat nonbait,
eta nik ireki egingo dut
eta nire baitan den arratoia egotziko nigandik at,

arratoi marraskari ustela,
Jainkoak bere bi eskuekin hartu
eta besarkatuko duena.
Afrikarrek esan ohi dutenez:
izan gozo, izan garratz,
nire istorioa da eta ez beste bat.
Zuek beste norabait heldu
eta lekuari kendu
niri kontatzeko moduko zerbait;
istorio hau amaitzen baita
arraunean naukala oraindik.

Elurra

Elurra,
elur bedeinkatua,
zerutik behera datoz
lixibaz zuritutako euliak.
Lurra ez dago jada biluzik.
Lurrak soinean ditu bere arropak.
Izarak zulatuta ageri dira arbolak
eta adar bakoitzak
Jainkoaren galtzerdia jantzi du.

Bada itxaropenik.
Itxaropena edonon datza.
Koska egiten diot.
Norbaitek behin esan zuen:
ez kosk egin jakin gabe
harri den ala ogi.
Dena ogi da kosk egin dudan hori,
altxatzen da, hodeia bezain bizigarri.

Bada itxaropenik.
Itxaropena edonon datza.

Jainkoak gaur esnea ematen du
eta eskuetan daukat pertza.

Medikuak

Lanabes: belarrak
eta penizilina.
Samurki euren lana
bisturiz egina.
Erauzi minbizia,
zauria itxi,
eta azal ezdeusari
otoitz bat josi.
Ez dira jainko,
—nahiko luketen arren—,
gizakiak dira soilik,
beste gizakiak konpontzen.
Masusta samurrak azaroan
taupaka nola,
gizon-emakume asko hiltzen da hala.
Baina medikuek taigabe diote:
batez ere, minik ez.
Musuak sendatuko balu, musu emango lukete.
Ez luke sendatuko.

Sendabidea jartzean,
eguzki berritan daude.
Hilko balute inor,
lurra mozorrotzaile.
Bihotza geratzeaz bainoago
harrokeriaz behar lukete ardura.
Harroegi badira
—gertatu ohi da—,
zaldiz doaz etxetik utikan,
baina Jainkoak ditu
itzularazten oin bitan.

Zigarroak, whiskia eta emakume benetan basatiak

(kantu batetik)

Belauniko jaio nintzen agian,
negu luzean eztulka,
errukiaren musuaren zain,
abiadak liluratuta.

Gauzek aurrera egin ahala, dena den,
aise ikasi nuen eremu hesituaren
eta isolamenduaren zentzua,
enemak dakarren gasaren esanahia.

Bi edo hiru urte betetzerako ikasi nuen jada
ez belaunikatzen,
ez itxaroten, nire suak lurpean landatzen,
panpinei soilik xuxurlatzen zaien lekuan,
han, non haiek soilik diren lotarako etzaten,
itsusi eta perfektu.

Jada hitz asko idatzi ditut,
hainbat amodio aske utzi hainbat jenderentzat,
eta beti izan nintzena izan naiz orobat:
gehiegikeriaz, pasioz eta gutiziaz betetako emakume

bat.

Haatik, alferrikakoa iruditzen zait ahalegina.
Ez diot, akaso, nire buruari ispiluan so egiten
egunotan,
begiztatzeko arratoi mozkor bat nirekin
ezkutaketan?

Ez dut, akaso, gosea hain zorrotz sentitzen, non,
nahiago bainuke hil, hari aurpegira begiratu baino?
Beste behin belaunikatu naiz,
deskuidoan errukia baletor ere
denboraren kondarretan.